



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

# I. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2015eko maiatzaren 13, 14 eta 15  
Durango, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

## GIZARTE ZIENTZIAK

Oinarrizko Eskubideen maila  
anitzeko babesa: atxilotze eta  
entregatze agindu europarra

*Alazne Ascenso Gabiña*

183-188 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.i.24>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



## Oinarrizko Eskubideen maila anitzeko babesa: atxilotze eta entregatze agindu europarra

*Ascenso Gabiña, A.*

*Europar Batasuneko Zuzenbidea. UPV/EHUko ikertzailea. Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila.  
alazne.ascenso@ehu.eus*

### **Laburpena**

Lisboako Itunak ondorio juridiko garrantzitsuak ekarri ditu Europar Batasuneko esparru juridikoan. Horien artean, garrantzitsuenetako bat izan da Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunari onartu zaiola Itunek duten balio juridiko bera. Ondorioz, Europar Batasunak bere oinarrizko eskubideen katalogoa du. Beraz, egoera erabat aldatu denez, orain, hiru mailatako babesa dugu oinarrizko eskubideen babesa bideratzeko: Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmena, Europako Gutuna eta estatu kide bakoitzaren Konstituzioan onartzen diren oinarrizko eskubideak. Aztertuko dugu, gaur egun, nola bermatzen diren oinarrizko eskubideak auzi-iheseke euroaginduan.

Hitz gakoak: Lisboako Ituna, Gutuna, euroagindua.

### **Abstract**

*Lisbon Treaty has been important legal consequences in the law of the European Union, between them, it recognizes the same legal value of the Treaties to the Charter of Fundamental Rights of European Union, and it is suposes that nowadays the EU has itself catalogue of Fundamental Rights. At this moment, we have three diferents level to protection Fundamental Rights in the EU: European Convention on Human Rights, the Charter of Fundamental Rights of European Union and the fundamental rights of the Constitutions of Member States. Now, we analyze how are the fundamental rights garantized nowadays when we have to carry out the European Arrest Warrant when persons convicted in absentia.*

*Keywords: Fundamental Rights, EU Charter of Fundamental Rights, European Arrest Warrant*

### **1. Sarrera eta motibazioa**

Eratze-tratatuei jarraiki, Europar Batasuna ekonomiaren arloan garatuz joan zen. Halere, denboraren eta hainbat beharren ondorioz, oinarrizko eskubideen errespetua premiazko bilakatu zen. Hori dela-eta, Europako Erkidegoak garatuz joan ahala –gaur egungo Europar Batasunan bihurtu arte–, Europar Batasuneko hainbat arlo ere garatu ziren, hala nola askatasun, segurtasun eta justizia esparrua. Beste garai batean, pentsaezina zitekeen horrelako egoera baten aurrean egotea, non oinarrizko eskubideek sekulako garrantzia hartu baitute. Lisboako Itunarekin, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak Itunen balio juridiko bera eskuratu du. Ondorioz, Espainiako Konstituzio Auzitegiak birplanteatu du orain arte jarraitzen zuen doktrina babes judizial eraginkorra eskubidea bermatzeko. Izan ere, bere burua derrigortuta ikusi du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari judizio aurreko lehen auzia planteatzera. Hortaz, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari aukera sinestezina aurkeztu zaio oinarrizko eskubideak babesteko mailarik egokiena zein den zehazteko, Europar Batasuneko ordenamendu juridikoaren barruan.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Lisboako Ituna indarrean dagoenetik, oinarritzko eskubideen egoera asko aldatu da Europar Batasuneko ordenamendu europarrean. Europar Batasunak –elkarte supranazional gisa– bere oinarritzko katalogoa du orain. Hori kontuan edukita, askatasun, segurtasun eta justizia esparrua samurra da, esparru horren barruan subiranotasun nazionala jokoan dagoelako. Horrenbestez, normalean, estatuek errezeloak dituzte euren oinarrietako bat Europar Batasunaren eskuan uzteko. Espazio horren barruan, garrantzi nabarmena hartu du euroaginduak, elkarren arteko aitorten-printzipioan oinarritzen baita. Entregatze-sistema berriak aurrerapauso handia dakar berekin, alde batera utzi duelako aurreko Estradizio sistema: orain, aldiz, onarpen judiziala besterik ez da behar, eta gauzak askoz errazagoak dira.

Ekainaren 9ko 86/2011 Autoaren bidez, Konstituzio Auzitegiak judizio aurreko bere lehen auzia aurkeztu zuen Europar Batasuneko Auzitegiaren aurrean; eta, ondorioz, 2013ko otsailaren 26ko *Melloni* sententziari bide eman zitzaion. Aipatu sententziak zehaztu egiten du zein den mailarik egokiena oinarritzko eskubideak babesteko auzi-iheseke euroaginduetan. Judizio aurreko auziaren bidez, Europar Batasuneko Auzitegi Gorenari eskatu zitzaion bere iritzia emateko ekainaren 13ko Kontseiluaren 2002/584/JAI Esparru Erabakiaren baliozkotasunaren inguruan, otsailaren 26ko 2009/299/JAI Esparru Erabakian jasota dagoen moduan. Izan ere, 2009/299/JAI Esparru Erabakiaren xedea da pertsonen eskubide prosezalak indartzea, baita elkarren arteko aitorten-printzipioa aplikatzea erraztea ere, inputatua agertu ez den epaiketetan emandako ebazpenenetan.

Konstituzio Auzitegiak euroagindura estrapolatu egin zuen estradiziorako erabiltzen zuen doktrina, eta hori da arazoaren zioa. Batzuek goraiatu egin dute judizio aurreko arazoaren planteamendua<sup>1</sup>, Konstituzio Auzitegiaren pentsaera-aldaketa delakoan. Hala ere, beharbada, Konstituzio Auzitegiak eragozpen gutxiago jarri beharko lituzke Europako ordenamendu juridikoaren aurrean oinarritzko eskubideei dagokienez, eta faltan bota da judizio aurreko arazo horiek lehenago jorratu ez izana<sup>2</sup>. Inputatua epaitu gabe (*in absentia*) entregatzean oinarrituta zegoen aipatu doktrina konstituzionala, eta beti eskatzen zitzaizkien zenbait berme edo baldintza betetzea estatu errekeritzaileei. Esate baterako, eskatutako eta presente ego gabe (*in absentia*) egonik kondenatutako pertsonaren bat entregatuz gero, berriro epaitua izateko edo helegitea aurkezteko aukera edukiko luke; betiere kontuan hartuz *absentzian* kondenatutako guztiei defentsa-eskubidea urratzen zaiela. Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak emandako jurisprudentzian oinarrituta, Konstituzio Auzitegiak desagokitzat jo zuen doktrina hori erabiltzea. Judizio aurreko auzia horren bidez, Europako Justizia Auzitegiari aukera ematen zitzaion erabakitzeke zein zen mailarik egokiena oinarritzko eskubideak bermatzeko. Hau da, ea gutxienezkoen estandartzat hartzen zen; edo, ordea, nolabaiteko uniformetasuna ezarri beharra zegoen oinarritzko eskubideak babesteko Europako ordenamendu juridikoan.

Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiak hiru galdera egingo ditu: lehenenik eta behin, ea zer nolako interpretazioa eman behar zaien *absentzian* kondenatutako entreegi, 2009ko Esparru Erabakiaren 4bis artikuluan jarraiki. Zehazki, zehaztu beharra dago ea legeak eragozten duen entrega baldintzatzea; edo ea ukapena eragozten duen, baina ez, ordea, baldintzatutako entrega. Bigarrenik, zalantzan jartzen du zenbaterainokoa den defentsa-eskubideen gaineko babes europarra, eta ea babes hori bateragarria den Esparru Erabakiaren 4bis artikuluan emandako babesarekin. Azkenenik, aurreko galdera bien erantzuna baiezkoa bada, ea zer nolako

<sup>1</sup>Sentsu honetan, GARCÍA SÁNCHEZ, B., «Pluralismo constitucional en la Unión Europea y heterogeneidad de las normativas penales de los Estados miembros: problemas del principio de reconocimiento mutuo», en *Cuadernos de Política Criminal*, 106. zbkia, 2012, 130; GIPPINI FOURNIER, E., «¿Fin de la «autarquía jurídica» prelude de un conflicto anunciado? El primer reenvío prejudicial del TC», *La Ley*, 23. zbkia, iraila-urria, 2011, 7, Auzitegi Konstituzionalaren Autoa goraiatzen duena; ANDRÉS SANZ DE SANTA MARÍA, P., «Un nuevo paso en el diálogo judicial europeo: el Tribunal Constitucional español recurre al reenvío prejudicial», en FERNÁNDEZ LIESA C.R.eta al.: *Libro homenaje a Dámaso Ruiz-Jarabo Colomer*, CGPJ, Madrid, 2011. 200.

<sup>2</sup>Doktrinak horrela eskatu zuen Konstituzio Auzitegiko 199/2009-ko Sententziarako eta Auzitegi gorenak ez zuen kontuan hartu. Proposamen honen alde azaldu zen: TORRES PÉREZ, A., «Euroorden y conflictos constitucionales: A propósito de la STC 199/2009, de 28-9-2009», *Revista española de Derecho Europeo*, 35.zbkia, 2010. 470. Alderantziz, MARTÍN RODRÍGUEZ, P., «Crónica de una muerte anunciada: Comentario a la Sentencia del Tribunal de Justicia (Gran Sala), de 26 de febrero de 2012, Stefano Melloni, C-399/11», *Revista General del Derecho Europeo*, 30, 2013, 18. orrialdea, bere ikuspuntutik egoera desberdina zen kasu honetan, eta horregatik ez zen beharrezkoa galdera egitea.

interpretazioa eman behar zaion Gutunaren 53.artikuluari<sup>3</sup>. Azken xedapen horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiak zalantzan jarri du estatu kideek oinarrizko eskubideei babes handiagoa eman ahal izatea, Europar Batasuneko auzitegiek baino; edo, berriz, euroaginduak gutxieneko babes gisa interpretatu behar diren Europar Batasuneko Estatuetan.

### 3. Ikerketaren muina: judizio aurreko auzia

Konstituzio Auzitegiak auzia planteatzeaz gain, Europar Batasuneko Auzitegiari hiru interpretazio eskaintzen dizkio Gutuneko 53.artikulua inguruan. Beraz, lehenik eta behin adierazi du 53.artikuluaren gutxieneko estandar balitz bezala interpretatu daitekeela, eta, zentzu honetan, estatu kideek babes maila altuagoa eskaini edo eman dezaketela. Izan ere, interpretazio hori da Konstituzio Auzitegiak orain arte egin duena. Bigarren aukera da oinarrizko eskubideak babestuko dituen maila komuntzat hartzea; horren arabera, estatu kideek garrantzi bera eman beharko liokete oinarrizko eskubide bakoitzari. Azken aukeraren desabantaila da oinarrizko eskubideen babes gutxitzen dela batez ere Estatu batzuetan, Espainian kasu, non babes handiagoa ematen baiten defentsa eskubideari dagokionez. Halere, abantailen artean daude elkarren arteko aitortzen printzipioa ezartzea eta nazioarteko kooperazio judiziala sustatzea. Ondorioz, inpunitatearen aurkako borroka areagotuko litzateke, eta horrekin batera onartuko litzateke Gutunaren bidez gutxitu egin daitekeela oinarrizko eskubideen babes-maila, estatu kideen arau konstituzionaletan ezartzen dena. Azkenik, hirugarren interpretazioaren arabera, 53.artikuluaren gutxienezkoen estandarra edo babes-maila komuna da, egoeraren arabera, hau da, testuingurua eta kasuaren ezaugarri konkretuak kontutan edukita.

Bestalde, abokatu nagusiak sailkatu egingo ditu Esparru Erabakiaren 4bis artikulua atalakatuz. Bere iritziz, kategoria bi daude artikulu horren barruan. Alde batetik, lehenengo bi atalakatuz, hau da, a) eta b) letrak. Kasu horietan ulertzen da defentsa-eskubidea ez dela urratu. Bigarren atalakatuz, berriz, c) eta d) letrak egongo lirateke. Kasu horietan defentsa-eskubidea alegatu ahalko litzateke, eta entrega baldintzatu edo ukatu, inputatuak eskubidea duelako beste epaiketa bat edukitzeke.

Konstituzio Auzitegiak egin duen bigarren galderari dagokionez –hau da, ea Esparru Erabakiaren 4bis artikulua bateragarria den Gutunaren 47<sup>4</sup>. eta 48<sup>5</sup>.artikuluaren ezartzen diren eskubideekin– edo Europako Giza Eskubideen Itunaren 6.artikuluari dagokionez, BOTek Abogakatu Nagusia adierazi du 4bis artikulua Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eskakizunak bete ez ezik, kodifikatu ere egiten dituela. Horrez gain, alde aurretik aipatutako sailkapena berriz egin du, baina Estrasburgoko jurisprudentzia aipatuz<sup>6</sup>. Hirugarren galderari dagokionez, abokatu nagusiaren arabera, Europar Batasuneko Zuzenbidea ez da oinarrizko eskubideen gutxieneko estandarra; beraz, uko egin dio ere estatu kideek babes-maila handiagoa eman ahal izateari. Onartu du, osterantzean, Europar Batasuneko Zuzenbidearen lehentasun printzipioa ez dela betetzen edo ez dela errespetatzen, ezta aipatu Zuzenbidearen batasuna eta eraginkortasuna ere. Gainera, segurtasun juridikoaren printzipioari eragiten dio, eta, azken finean, eragozpen handia da bai euroagindua bai elkarren arteko aitortzen printzipioa betetzeko, arauen harmonizazioa behar duelako.

<sup>3</sup>Artikulu honek honako hau esaten du: Gutun honetako ezein xedapen ezin izango da interpretatu mugatzaile edo kaltegarri moduan, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunei dagokienez, azken horiek aitortu direnean, dagokien aplikazio-esparruari begira, dela Europar Batasuneko zuzenbidean, Nazioarteko zuzenbidean, Europar Batasuna, Europako Erkidegoa edo estatu kideak alderdi dituzten nazioarteko hitzarmenetan, eta, bereziki, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean, dela estatu kideetako konstituzioetan.

<sup>4</sup>Artikulu honek esaten du: Benetako babes judizialerako eta alderdikierarik gabeko epailea izateko eskubidea. Europar Batasunaren Zuzenbideak ziurtatzen dituen eskubide eta askatasunak bortxaturik ikusi dituen pertsona orok babes judizial eraginkorra izateko eskubidea du, artikulu honetan ezarri- tako baldintzak errespetatuz. Pertsona orok du bere kausa legeak aurrez finkaturiko arrazoizko epe baten barruan epaile independente eta inpartzial batek ekitatiboki eta publikoki entzuteko eskubidea.

<sup>5</sup>Pertsona orok du aholkuak jasotzeko eta defendatua eta ordezkaria izateko eskubidea. Behar adina baliabiderik ez dutenei doako laguntza juridikoa eskainiko zaie, betiere laguntza hori justiziaren aurrean eraginkortasunez aurkeztuko dela ziurtatzeko beharrezkoa denean. Errugabetasun-presuntzioa eta defentsaren eskubideak: 1. Akusatu oro errugabetzat hartzen da bere erruduntasuna legez frogatzen eta aitortzen den arte. 2. Akusatu orori defentsaren eskubideak errespetatuko direla ziurtatzen zaio.

<sup>6</sup>Bereziki Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren hurrengo sententziak: Sejdic Italiaren aurka, 2006ko martxoaren 1koa, 84. atala eta Haralampiev Bulgariaren aurka, 2012ko apirilaren 24koa, eta Idalov Errusiaren aurka, 2012ko maiatzaren 22koa.

Justizia Auzitegiak erantzun eta argudio labur-zehatzak eman ditu. Horrenbestez, doktrinak kritikak izan ditu, sententziak ez baititu Auzitegi Gorenaren ondorioak ez argudiatzen ez oinarritzen, abokatu nagusiak egiten duen moduan. Lehenengo galderari buruz –hau da, 4bis artikulua–, Justizia Auzitegiak aipatu du Esparru Erabakia kontuan hartu behar dela, baita bere helburuak ere. Horien artean nabarmentzen dira, batetik, entrega baldintzatzeko ahalmena indargabetzea, 2002ko Esparru Erabakiaren 5.artikuluaren xedatutakoari jarraiki. Bestetik, entrega-prozesuak arintzea konfiantza-printzipioan oinarrituta; eta, azkenik, elkarren arteko aitortzen-printzipioa sustatzea, betearazpen ezaren arrazoiak bateratuz. Justizia Auzitegiak onartu du 4bis artikulua hautazko arrazoiak ezartzen dituela euroagindua ez betearazteko; bereziki, inputatua epaiketan aurkeztu ez bada.

Bigarren galderari dagokionez, Justizia Auzitegiak onartuko du eskubide hori ez dela absolutua eta akusatuak uko egin ahal diola, betiere modu argian adierazten badu (baldin eta abokatu batek defendatu badu, eta epaiketaren dataren berri eman bazaio). Azkenik, ondorioztatu du bai artikulua hori bai defentsa-eskubidearen kontzeptua bat datozela Giza Eskubideko Europako Itunaren 6.artikuluaren ezartzen denarekin eta Giza Eskubideko Auzitegiaren jurisprudentziarekin. Gainera, euroagindua bateratzeko helburuekin bat dator, pertsonen eskubide prozesalari indartzen ditu, eta elkarren arteko aitortza-printzipioa hobetzen du.

Judizio aurreko azkenen auziari dagokionez –hau da, Gutunaren 53.artikuluaren norainokoa–, Justizia Auzitegiak uko egin dio gutxieneko maila gisa erabiltzeari, Abokatu Nagusiarekin bat etorriz. Beraz, uko egin dio estatu kideek babes-maila handiagoa eskaintzeko aukerari. Horretarako, ondoko arrazoietan oinarritu da: a) lehengo eta behin, adierazi duenez, interpretazio hori jarraitzen ez bada, urratu egingo dira Europako Zuzenbidearen lehentasun, eraginkortasun eta lehentasun printzipioak; b) bestalde, interpretazio horrek ez du bat egiten 2002ko Esparru Erabakiarekin. Aipatu Esparru Erabakiaren xedea da elkarren arteko aitortzen-printzipioaren zailtasunak gainditzea, inputatua bertan egon gabe eman diren ebazpenenetan. Hori lortze aldera, agindua betearazteko baldintzak bateratu behar dira. Aldi berean, estatu kideek adostasuna lortu behar dute, eta maila bera ezarri oinarritzko eskubideak babesterako orduan. Ondoren, ez du bereizketarik egiten babes-esparru bien artean, hots, nazioaren eta erkidegoaren artean<sup>7</sup>. Abokatu nagusiak, aldiz, bereizketa hori egiten du. Sententziak arreata jartzen du, batez ere, efikazia eta lehentasun-printzipioa gatazkan sartzen direnean Zuzenbide nazionalarekin. Bestalde, Auzitegiak onartu du ez duela eskumenik erabakitzeko Estatu kideek haien lurraldearen barruan edo kide ez diren Estatuak oinarritzko eskubideei ematen dieten babesaren gainean. Bukatzeko, azaldu du ez dagoela aukerarik inputatua bertaratu gabe eman diren entregak Estatu kideen menpean jartzeko. Izan ere, Esparru Erabakiak adierazten du Estatu kideek lortu duten adostasuna, defentsa-eskubideari dagokionez.

#### 4. Ondorioak

Judizio aurreko lehen auzia ez da berria, oinarritzko eskubideei buruzko hainbat ordenamendu juridiko gainjartzen baitira: Europako Giza Eskubideen Ituna, Gutuna eta Konstituzio nazionalak, hain zuzen ere. Halaber, kontuan eduki behar da sistema bakoitzaren organo judizialak bere interpretazioak egiten dituela. Oinarritzko eskubideei dagokionez, kasuan antzeman daiteke ez dagoela benetako homogeneizaziorik Europan. Auzitegi Judizialak erabaki askoz sakonagoa eman zezakeen, baita askoz konkretuagoa ere, Gutuna nola aplikatu behar den jakiteko. Azken finean, Auzitegi Judizialaren iritzia da garrantzitsuena: oinarritzko eskubideen babesa erabakitzerako orduan, estatu kideek ezin dituztela maila ezberdinak zehaztu, ez gutxiago ez gehiago; hau da, Europar Batasunaren Zuzenbideak zehazten duena eskaini behar dute, baldin eta Batasunaren lehentasunari eta zuzeneko eraginkortasun-printzipioei eragiten bazaie. Beraz, Europar Batasunaren Zuzenbideak ez du gutxienezkoen estandarra ezartzen. Aldiz, oinarritzko eskubideak babesterako orduan, arau homogeneoak eskaintzen ditu, konfiantza, elkarren arteko aitortpena, eta Batasunaren eraginkortasun eta lehentasun printzipioak kontuan edukita. Hemendik aurrera, Justizia Auzitegiak horrelako kasu anitzei egin beharko die aurre. Testuinguru berri baten aurrean gaude, hots, Europar Batasunak bere oinarritzko eskubideen katalogoa dauka, eta hemendik aurrera sententziaz sententzia erabaki beharko du nola aplikatu behar den Gutuna. Kontuan hartu beharra dago tresna juridiko berria dela, alde aurretik ez genuena.

Beste alde batetik, Espainiako Konstituzio Auzitegiak aldatu beharko du orain arte defentsa-eskubideari eman dion estandarra, eta Luxenburgoko jurisprudentzia kontuan eduki beharko du oinarritzko

<sup>7</sup>Sententziako 57.tik 60. atalera.

eskubideei dagokionez. Hortaz, alde batera utzi beharko du orain arte euroaginduari aplikatu dion doktrina. Izan ere, nazioarteko kooperaziorako tresna juridiko baten aurrean gaude, estatu kideen eta gainontzeko ordenamendu juridikoen arteko konfiantza oinarritzat duena.

## 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea: Norantz doa Justizia Auzitegia?

Euroagindutik abiatuta, egiazta dezakegu oinarritzko eskubideek garrantzi nabarmena hartu dutela Europan; beste garai batean, pentsaezina zen hori. Era berean, euroaginduak erakusten digu hainbat sistema daudela oinarritzko eskubideak babesterako orduan eta, batzuetan, sistemok gainjartzen direla. Sistema horien barruan, ezinbestekoa da Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna, alegia, Europar Batasuneko ordenamendu juridikoaren berezko sistema, oinarritzko eskubideak babesten dituen. Beraz, hemendik aurrera, eta orain dela gutxi indarren dagoela kontuan edukita, aztertu beharko ditugu Justizia Auzitegiak ebazten dituen kasuak, Gutuna nola aplikatu edo interpretatu behar den jakiteko edo ikasteko.

## 6. Erreferentziak

ANDRÉS SANZ DE SANTA MARÍA, P., «Un nuevo paso en el diálogo judicial europeo: el Tribunal Constitucional español recurre al reenvío prejudicial», en FERNÁNDEZ LIESA C.R. eta Al, 2012, : *Libro homenaje a Dámaso Ruiz-Jarabo Colomer*, CGPJ, Madrid, 2011. 189-214.

GARCÍA SÁNCHEZ, B., «Pluralismo constitucional en la Unión Europea y heterogeneidad de las normativas penales de los Estados miembros: problemas del principio de reconocimiento mutuo», en *CPC*, nº 106, 2012. 121-222.

GIPPINI FOURNIER, E., «¿Fin de la «autarquía jurídica» prelude de un conflicto anunciado? El primer reenvío prejudicial del TC», *La Ley*, nº 23, septiembre-octubre, 2011.

IGLESIAS SÁNCHEZ, S., «La jurisprudencia constitucional comparada sobre la orden europea de detención y entrega, y la naturaleza jurídica de los actos del Tercer Pilar», *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, nº 35, 2010.

PEERS, S., «The European Arrest Warrant: The Dilemmas of Mutual Recognition, Human Rights, and the EU Citizenship», en *The Court of Justice and the Construction of Europe: Analyses and Perspectives on Sixty Years of Case-Law*, Asser, La Haya, 2013.

TORRES PÉREZ, A., «Euroorden y conflictos constitucionales: A propósito de la STC 199/2009, de 28-9-2009», en *Revista española de Derecho Europeo*, nº 35. 2010.

MARTÍN RODRÍGUEZ, P., «Crónica de una muerte anunciada: Comentario a la Sentencia del Tribunal de Justicia (Gran Sala), de 26 de febrero de 2012, Stefano Melloni, C-399/11», en *Revista General del Derecho Europeo*, 30, 2013.

## **7. Eskerrak eta oharrak.**

Lehenik eta behin, gustatuko litzaidake eskerrak ematea nire zuzendari Edorta Cobreros Mendozari, nigan eduki duen konfiantzagatik, baita tesina eta tesia zuzentzeagatik ere. Bigarrenik, UPV/EHUri eskertu nahi nioke urteotan emandako diru-laguntza, dela tesia idazteko dela beste ikerlan batzuk egin ahal izateko, horien artean, egonaldia Maastrichteko Unibertsitatean (Herbehereetan). Azkenik, eskerrak eman nahi nizkieke nire lankide Eneko Compainsi eta Miren Odriozolari, egunero eman didaten babesagatik.